



Kurtso hasiera

Guraso agurgarriok,

Ongi etorri *Quick Minds*-era!

Quick Minds Lehen Hezkuntzako sei urteetarako sei nibeletako ingeleseko kurtsoa da. Haur Hezkuntzan ikasitako ingelesari jarraipena ematen dio, eta Espainian dauden Lehen Hezkuntzako ikastoletako ingeleseko hizkuntzaren irakaskuntzarako kurrikulumari jarraituz garatu da.

Ikasturte honetan, zuen seme-alabak *Quick Minds* 3-rekin ikasiko du ingelesa. *Quick Minds* 3, umek Ben eta Lucy *The Explorers* ('Esploratzaileak'), eta Ben-en txakurra ezagutzen dituzten gaztelu batean hasten da. Beraiekin bat egingo dute aztarnak jarraituz, altxorren bilaketa zirrargarrian eta uneoro, Horax eta Zelda gaiztoengandik pauso bat aurrerago joaten saiatuko dira.

Esploratzaileen **istorioekin** ongi pasatzen duten heinean, umek gai desberdinetara hurbilduz, **hiztegi** eta **gramatika** erabilgarria ikasiko dute, eta baita kantu **dibertigarriak** ere.

Zuen seme-alabaren ingelesa etxetik ikasteko esperientzian parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. *Quick Minds*-ek online dituen jarduera interaktiboekin egin dezakezue www.quickmindsapps.es orrialdea bisitatuz. Bertan, familiar jolasteko **hiztegi eta gramatikako jolas interaktibo dibertigarriak** daude. **Abesti** eta **istorioak** online ere eskuragarri daude. Horrela, edozein unetan abestiak abestu eta istorioak ikusi eta entzun ditzakezue.

Espero dugu *Quick Minds*-en ingelesarekin zuen seme-alabak bezain ongi pasatzea!





Welcome Meet the Explorers gaia

Guraso agurgarriok,

Ikastarorako sarrera unitatean (*Welcome Unit*), *Meet The Explorers*, zuen seme-alabak **gaztelu baten atalen** inguruko hiztegia eta **1etik 20rako zenbakiak** berrikusiko ditu. Horrez gain, animalien eta eskolako tresneriaren hiztegia ere berrikusiko du, eta daukana eta ez daukanaren eta egin dezakeenaren eta egin ezin dezakeenaren inguruan hitz egingo du.

Eska iezaiozue zuen seme-alabari Ben eta Lucy esploratzaileez hitz egiteko. *The Explorers* **abestia** entzun, eta **karaoke** bertsioan abestu dezakezue. *The old book istorio biziduna* ere entzun eta ikus dezakezue. Galdetu zuen seme-alabari ea nortzuk diren Horax eta Zelda eta zer ari diren aurkitzen.

Gainera, unitate honetarako online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastera animatzen zaituztegu.

Ongi pasatzea espero dugu!



1 gaia My week

Guraso agurgarriok,

1. gaian, *My week*, zuen seme-alabak **asteko egunak** ikasi eta **asialdiko jarduerak** erreparatuko ditu. Asteaz zehar eta asteburuetan egiten duenari buruz hitz egingo du. Ikasitakoa era dibertigarrian berrikus dezake online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin**.

Animatu zuen seme-alaba *It's a busy week* **abestia** abestera –edo hobeto pasatzeko, **karaoke** bertsiorekin guztiok batera abestu!

Galdetu zuen seme-alabari Ben eta Lucy-ren abenturagatik: Nora doaz laguntza eskatzera? Zer aurkitzen dute liburu zaharrea? Zein da liburuaren mezua? Orain, ikusi batera **istorio biziduna**, online.

Azkenik, zuen seme-alabak **musika instrumentu** desberdinak ikasiko ditu eta maraka batzuk egingo ditu. Eska iezaiozue erakusteko, musika jarri eta batera dantzatu erritmoa.

Ongi pasatzea espero dugu!



2 gaia Birthdays

Guraso agurgarriok,

2. gaian, *Birthdays*, zuen seme-alabak **urteko hilabeteak** eta **gauzak eta pertsonak deskribatzeko izenondoak** ikasiko ditu. Horrez gain, gelakideei euren urtebetetze datagatik galdetuko die eta berarena noiz den azalduko du. Ez ahaztu online dauden **hiztegi eta gramatikari buruzko jolas interaktiboekin** jolastea.

Galdetu zuen seme-alabari ea zein den berak gustuko duen hilabetea, eta familiakoen gustuko hilabetez eta urtebetetzez hitz egin. Sally-ren urtebetetzearen **abestia** abestu eta bere soinu dibertigarriaren erritmora dantzatu! Animatu zuen seme-alaba abestirako idatzi duen bertso berria irakurtzera. Beste bertso bat idatzi dezakezue batera.

Tidying up **istorio biziduna** batera ikusi, eta galdetu zuen seme-alabari ea zein letra aurkitu duten Ben eta Lucy-k. Aurrerago gertatuko dena ere asmatu dezakezue.

Azkenik, **sormen** ikasgaian, zuen seme-alabak irudikatze gidatu bat entzungo du eta bere logelan gertatzen ari den jostailuen festa bat imajinatuko du. Gero, berak imajinatzen duena marraztuko du. Eskaiozue marrazkia erakusteko eta ingelesez deskribatzeko.

Unitatean ongi pasatzea espero dugu!





3 gaia **Our day**

Guraso agurgarriok,

3. ikasgaian, *Our day*, zuen seme-alabak **eguneroko ohiturekin** erlazionatutako hiztegia eta **ordua esaten** ikasiko du. Eguneroko ohiturei buruz hitz egingo du eta gelakideei euren ohiturez galdetuko die. Hiztegi eta gramatika berrikusteko modurik hoberena, online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** zuen seme-alabaren eguneroko ohitura bihurtzea izango litzateke.

Animatu zuen seme-alaba *Mr Blue* **abestia** abestera. Gozatu **karaoke** bertsoarekin batera abestuz. Galde iezaiozue idatzi zuen bertsoaren inguruan edo beste bat idatzi dezakezue.

The Golden Apple **istorioan**, Ben eta Lucy beste abentura batera joango dira. Ikusi batera online dagoen **istorio biziduna**, eta galdetu ea Ben eta Lucy-k aurkitu duten letratik hasten diren zenbat hitz ezagutzen dituen ingelesez.

Azkenik, zuen seme-alabak **bizimodu osasuntsu** bat eramateko aholkuak ikasiko ditu. Galdeiozue ea zer usten duen dela garrantzitsua bizimodu osasuntsua eramateko. Horrez gain, ikasgelan egindako grafikoari buruz galdetu ahal diozue.

Unitatean ongi pasatzea espero dugu!



4 gaia The haunted house

Guraso agurgarriok,

4. gaian, *The haunted house*, zuen seme-alabak **etxeko logelei** buruz hitz egiten eta **gauzak eta pertsonak non dauden** esaten eta galdetzen ikasiko du. Ez ahaztu online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastea.

Galdetu zuen seme-alabari ea zein den berak gustuko den logela. Etxeko animalien **abestia** abestu eta **karaoke** bertsoarekin dantzatu!

Galdetu zuen seme-alabari ea *Up High* **istorioan** Ben eta Lucy-k non aurkitu duten letra. Ikusi batera online dagoen **istorio biziduna**.

Azkenik, **sormen** ikasgaian, zuen seme-alabak etxe sorgindu bat imajinatuko duen irudikatze gidatu bat entzungo du. Gero, etxearen marrazkia egingo du. Eskaiozue marrazkia erakusteko eta ingelesez etxe sorginduari buruz hitz egiteko.

Ongi pasatzea espero dugu!



5 gaia By the sea

Guraso agurgarriok,

5. gaian, *By the sea*, zuen seme-alabak **ekintza aditzak** ikasiko ditu. Orain gertatzen ari denari buruz hitz egin eta galdetuko du: lagunek egiten dutenari buruz, marrazkietako pertsonaiak egiten ari direnaz... Online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** hiztegia berrikus dezakezue.

Eskatu zuen seme-alabari *Molly, Fred and Ben* **abestia** abesteko. Bertsoak konposatu eta **karaoke** bertsioarekin abestu.

Galdetu zuen seme-alabari Ben eta Lucy-ren hurrengo abenturagatik: Non ari dira letra aurkitzen? Zein animalia dute Horax eta Zeldak kaiolan? Nork laguntzen dio Ben-i besoa ateratzen? Ez ahaztu *The trap* **istorio biziduna** online ikusten!

Bukatzeko, zuen seme-alabak **patroi eta simetriari** buruz ikasiko du, eta arrain simetriko bat egingo du. Eskaiozue erakusteko. Bere gela apaintzeko edo horma-irudi bat egiteko gauza simetriko gehiago egin ditzakezue.

Unitatearekin gozatzea espero dugu!



6 gaia The market

Guraso agurgarriok,

6. gaian, *The market*, zuen seme-alabak **elikagaien** inguruko hiztegia ikasiko du, eta baita beste presonei gauzak **eskaintzen** ere. Zein elikagai jango lituzkeen eta zeintzuk ez esango die gelakideei. Etxean gehiago lantzeko, online dauden **hiztegi** eta **gramatikako jolas interaktiboak** erabil ditzakezue.

Animatu zuen seme-alaba *Would you like some fruit?* **abestia** abestera. Galdetu ea zein den bere fruiturik gustukoena eta familiakoen fruitu gogokoenen inguruan hitz egin.

Galdetu zuen seme-alabari ea zer gertatzen zaien Ben eta Lucy-ri aste honetan: Non aurkitu dute letra? Guztiak sartu dira kobazuloan? Nola alde egin du Ben-ek Horax eta Zeldagandik? Ez ahaztu **istorio biziduna** batera ikustez!

Azkenik, **sormen** ikasgaian, zuen seme-alabak irudikatze gidatu bat entzungo du, eta bere fruitu entsalada gustukoena imajinatuko du. Gero, marrazki bat egingo du. Eskaiozue marrazkia erakusteko eta zein fruituz osatuta dagoen esateko.

Unitatearekin ongi pasatzea espero dugu!





7 gaia **Around town**

Guraso agurgarriok,

7. gaian, *Around town*, zuen seme-alabak **herri bateko tokiak** eta **bere herrian dagoenari** buruz azaltzen eta galdetzen ikasiko du. Herri bat imajinatuko du eta gelakideei galdetuko die ea euren herriek zer duten. Ez ahaztu online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastea.

Animatu zuen seme-alaba *Our town* **abestia** abestera. Edo batera abestu eta dantzatu **karaoke** bertsoarekin!

The Final Letters **istorio biziduna** batera ikusi eta munduko kultura desberdinei buruz hitz egin.

Azkenik, zuen seme-alabak **hiriei eta arteari** buruz ikasiko du. Bere herriko *collage* bat egingo du. Eskatu erakusteko eta hiritik gehien gustatzen zaizkion tokiei buruz hitz egiteko.

Ongi pasatzea espero dugu!



8 gaia **Holiday plans**

Guraso agurgarriok,

8. gaian, *Holiday Plans*, zuen seme-alabak **oporretako ekintzen** hiztegia ikasiko du. Horrez gain, **gauzak heziera onez eskatzen, eta iradokizunak eta oporretako plangintza** egiten ikasiko du. Hiztegi hau berrikusteko, online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabili ahal dituzue.

Galdetu zuen seme-alabari ea oporretan zer egin nahi duen. *It's time for a holiday* **abestia** abestera animatu, eta ez ahaztu **karaoke** bertsioa erabiltzeaz!

Azken irakasgai honetan, Ben eta Lucy abenturaren azken txanpara iritsi dira. Galdetu zuen seme-alabari ea zein den altxorraren logela irekitzeko pasahitza: Horax eta Zeldaren ustez zein da pasahitza? Zer aurkitu dute Ben eta Lucyk logelan? Ben eta Lucy-k nora eraman nahi dute estatua? **istorio biziduna** batera ikusi dezakezue, online.

Azkenik, **sormen** ikasgaian, zuen seme-alabak irudikatze gidatu bat entzungo du eta opor dibertigarriak imajinatuko ditu. Gero, horren inguruko marrazkia egingo du. Eska iezaiozue marrazkia erakusteko eta galdetu ea non eta norekin dagoen oporretan.

Ongi pasatzea espero dugu!





Kurtso amaiera

Guraso agurgarriok,

Ikasturte honetan, zuen seme-alabarekin batera *Quick Minds* 3-ko ingelesa etxetik landuz ongi pasatu izana espero dugu. Eta era berean, online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastuz, istorioak ikusi eta irakurriz, eta abestiak entzun eta abestuz gozatu izana.

Gogoratu, edozein unetan, gehien gustatu zaizkizuen jolas interaktiboekin jolastu, istorio bizidunak berriro ikusi eta gogokoen dituzuen abestiak berriz abestu ditzakezuela.

Bukatzeko, esploratzaileei: Ben, Lucy, eta Buster txakurrari zuek agurtzea gustatuko litzaieke eta opor zoriontsuak opa dizkizute!

